

**EBAZPENA, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko gerentearena, 2019ko, 2020ko, 2021eko eta 2022ko lan-eskaintza publikoei dagozkien barne promozioeko sarbide-modalitateko prozedura arruntaren bidez funtzionario gisa sartzeko onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onartzeko dena.**

Errektorearen 2022ko urriaren 20koa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko administrazio eta zerbitzuetako funtzionario eta lan kontratuko langileentzako 2019ko, 2020ko, 2021eko eta 2022ko enplegu publikoaren eskaintzei dagozkien oinarri orokorrak bai eta funtzionarioen barne-sustapenekoak ere argitaratzea agindu zen.

2022ko azaroaren 7an argitaratu ziren UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako langileen A, B, C eta D taldeetarako barne-sustapenaren bidez sartzeko hautaketa-prozedura arautzeko oinarri espezifikoak.

Seigarren oinarri orokorreko lehenengo paragrafoan zehaztutakoari jarraituz, UPV/EHU gerenteak eskaerak aurkezteko epea bukatu ondoren, onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda onartzeko erabakia emango du, baztertutakoen kasuan, kanpoan uzteko arrazoiak adierazita.

Arestian adierazitakoagatik eta errektorearen 2021eko urtarrilaren 28ko erabakiaren bidez (2021eko otsailaren 12ko EHAA) pertsonalaren alorrean eskuordetu zaizkidan ahalmenez baliatuz,

#### **ERABAKI DUT:**

**Lehenengoa.**-UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako langileen A, B, C eta D taldeetan barne-sustapenaren bidez sartzeko deialdi espezifikoetan onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onartzea, dagozkien eranskinetan, eta, hala badagokio, baztertzeko arrazoiak adieraztea.

**Bigarrena.**- Erabaki hau deialdi espezifiko bakoitzaren webgunean argitaratzea, horretarako gaitutako UPV/EHUren web-orritik sar daiteke orri horretara (<https://www.ehu.eus/eu/web/azp/ope-barne-promozioa>), deialdi espezifiko bakoitzaren web-orrian, baita UPV/EHUko iragarki-oholetan ere.

**Hirugarrena.**- 3.1 oinarri espezifikoan ezarritakoaren arabera, azterketa egiteko erabiliko den galdera sorta hautaketa-prozesuaren web orrialdean argitaratzea.

**Laugarrena.**- 6.2. oinarri orokorrean adierazitakoaren arabera hamar egun baliodunen barman, erabaki hau argitaratu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita, onartutakoen eta baztertutakoen zerrendaren aurkako erreklamazioak egiteko, edo, hala badagokio, akatsak zuzentzeko.

Errektoreak 2021eko urtarrilaren 28ko erabaki bidez eskumenak erabiliz (2021eko otsailaren 12ko EHAA)